


GERNIKA-LUMO
2022

XXI.
IDAZLAN
KOADERNOA
Ipuin zoragarriak

**Lehen Hezkuntza**
**GERNIKA-LUMO**
2022

**edizioa**


Argitaratzailea:
• **Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua eta Hezkuntza Saila**

Laguntzaileak:
• **Allende Salazar Ikastetxea**
• **Barrutia Eskualde Ikastetxea**
• **Mertzede Ikastetxea**
• **San Fidel Ikastola**
• **Seber Altube Ikastola**

Azalaren egilea:
**XXXXXXXX**
XXX. mailako ikaslea)

Babeslea:
• **Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila**
(Euskara Zuzendaritza)

Diseinua eta maketazioa:
• **11barri**

Inprimaketa:
• **Lizaso Grafikak Zornotza**

# XXI. IDAZLAN KOADERNOA

## Ipuin zoragarriak

Lehen Hezkuntza
GERNIKA-LUMO
2022

# IDAZLAN KOADERNOAK 2022

GERNIKA-LUMO




## aurkibidea


| IZENA | maila | IPUINA | orr. |
|---|---|---|---|
| Irati Isasi | L.H. 2. | ***«Olaia eta izurdea»*** | **5** |
| Xabier Cesar Makazaga | L.H. 2. | ***«Raul eta aterki magikoa»*** | **8** |
| Aner Mendiolea Salegi | L.H. 2. | ***«Liher eta bere abenturak»*** | **10** |
| Libe Ibarluzea | L.H. 2. | ***«Naroa eta gozokiak»*** | **11** |
| Irati Ojinaga | L.H. 2. | ***«Itsasoko erregina»*** | **12** |
| Uxue Villegas Olarreta | L.H. 2. | ***«Bikiak»*** | **14** |
| Haizea Laskurain | L.H. 2. | ***«Haizea eta elurrezko panpina»*** | **16** |
| Kattalin Sierra | L.H. 2. | ***«Eguzki sistema»*** | **17** |
| Eider Auzmendi | L.H. 2. | ***«Paula eta animaliak»*** | **18** |
| Gari Motxobe Zabala | L.H. 3. | ***«Ume bat basoan galduta»*** | **19** |
| Ane Ajuriagogeaskoa Gortazar | L.H. 3. | ***«Patxi eta ardia»*** | **22** |
| Alexandra Elena Prisacariu | L.H. 3. | ***«Lagun berri bat»*** | **24** |
| Arritxu Uriarte | L.H. 3. | ***«Bi lagun eta tigreak»*** | **26** |
| Xubane Txopitea | L.H. 3. | ***«Kaseta»*** | **28** |
| Maria Lezamiz Ojanguren | L.H. 4. | ***«Amonaren istorioak»*** | **30** |
| Alex Bana | L.H. 4. | ***«Alferkeria ez da lagun ona»*** | **32** |
| Maddi de la Fuente | L.H. 4. | ***«Ireneren ametsa»*** | **35** |
| Izar Galarza Jaio | L.H. 4. | ***«4 lagun espaziotik»*** | **37** |
| Lur Bilbao | L.H. 4. | ***«Garazi eta baso babestua»*** | **39** |
| Miren Arenaza | L.H. 4. | ***«Itsasora erori zen izarra»*** | **41** |
| Laiatz Egiarte Enbeita | L.H. 5. | ***«Natura zaindu»*** | **43** |
| Denisa Martin Ionita | L.H. 5. | ***«Portal magikoa»*** | **46** |
| Intza Agate Galdos Bidaguren | L.H. 5. | ***«Musikaren herria»*** | **49** |
| Anari Zearra | L.H. 5. | ***«Jolas arriskutsua»*** | **52** |
| Elene Basterretxea Revuelta | L.H. 6. | ***«Itxaropena galdu gabe»*** | **55** |
| Jare Mugira Elortza | L.H. 6. | ***«Lore»*** | **58** |
| Enaitz Hormaetxea Arrien | L.H. 6. | ***«Antton eta bi uharteak»*** | **61** |
| Zuhaitz Gonzalez Diez | L.H. 6. | ***«Aner pikantearen atzetik»*** | **64** |
| Naiara Arriola | L.H. 6. | ***«Zein ipuin da hau?»*** | **68** |
| Maddi Unda Bilbao | L.H. 6. | ***«Surf txapelketa»*** | **71** |



Irati Isasi

«Gehien gustuko dudan animalia izurdea da»

# Olaia eta izurdea

Olaia eta izurdea

Bazen behin, Gernikan bizi zen
hamabost urteko neskato bat
Olaia izenekoa. Olaiak lagun berezi bat
zuen, izurde polit bat. Egunero itsasora
joaten zen bera ikastera. Egun batean,

Izurdea ikustera joan zenean sare handi
batekin kateatuta ikusi zuen. Olaia oso urduri
jarri zen ez zekielako igeri egiten baina
bere laguna askatu nahi zuen.
Pentsatu gabe, bere amak jarritako hamai-
ketakoan zegoen aiztoa hartu eta
uretara salto egin zuen. Bere indar guztiak erabiliz
sarea apurtu zuen. Izurdeak Olaia bere lepoan
hartu eta uretatik atera zuen. Egun
hartatik aurrera, Olaia uretara

sartzen zen bildur gabe bere lagun
handiarekin jolastera. Igeri egiten ere
ikasi zuen.

Hala bazan ala ez bazan, sar dadila
Kalabazan eta atera dadila herriko
plazan.



L.H. 2. maila



## Xabier Cesar Makazaga

«Nagusitan, sukaldaria izan nahi dut»

# Raul eta aterki magikoa

Bazen behin Raul izeneko mutiltxo bat.
Aterki bat zuen eta asko gustatzen zitzaion.
Gau batean, Raulek soinu bat entzun zuen eta soinu hori aterkiarena zela pentsatu zuen. Arrazoia zuen! Zer gertatu ote zen aterkiarekin eta Raulekin?
Aterkia zarratzen zuenean, Raul telegarraiotzailea bihurtu zela.
Raul, aterkiari esker, munduko toki polit eta interesgarri asko ezagutu zituen: Paris, Roma, Txina, Japon, Argentina, Brasil, London eta Nueva York.
Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Busturiko plazan.


ROMA
PARIS
NUEVA YORK

L.H. 2. maila



# Aner Mendiolea Salegi

«Gehien gustatzen zaidana lagunekin jolastea da;
batez ere, futbolean»

# Liher eta bere abenturak

Bazen mutil bat Liher izenekoa. Begi urdinak eta ile marroia ditu. Liherrek munduari bueltа ematea pentsatu zuen eta amari esan zion. Baina amak ezetz esan zion nota txarrak ateratzen zituelako. Orduan nota onak ateratzen saiatu zen eta lortu egin zuen. Amari esan zion:

- Prest nago! eta ibiltzen hasi zen.

Kotxea hartu eta Bilbora joan zen, han hegazkina hartu zuen. Hegazkinetik paisaia politak ikusi zituen eta Txinara heldu zenean, Kaletik zihoala: tigrea, lehoia, pantera ... ikusi zituen. Euren ondotik pasatu eta ez zuten beldurrik ematen.

Hurrengo egunean Japonera heldu zen eta han jateko orduan, denetarik jaten zutela konturatu zen: intsektuak, zaguak, zaguzaharrak... Liherri naska ematen zionez jan gabe gelditu zen hainbat egunetan eta horrela asko argaldu zen.

Handik Estatu Batuetara joan zen eta han kotxeak hegan egiten zuten. Berak kotxe handia eta hegalaria erosi zuen.

Beraz, Liher azkenean Estatu Batuetan geratu zen bizitzen eta han abentura gehiago izan zituen. Hi + bi = lau, amaitu da ipuin hau.





Libe Ibarluzea

«Saskibaloira jokatzea eta dantzan egitea gustatzen zait»

# Naroa eta gozokiak

Bazen behin Gernika izeneko herri baten Naroa izeneko neska gazte bat. Gozokiak zituen oso gustuko.

Asteburu batean, Naroaren gurasoak etxetik joan ziren erosketak egitera eta Naroa etxean bakarrik geldituz zen. Etxean bakarrik zegoela gozoki bat hartzeko gogoa sartu zitzaion, sukaldeko armairua zabaldu zuen eta kristalezko pote batean zeuden gozoki denak. Potea hartu, zabaldu eta gozoki bat jan zuen. Bat-batean beste bat, eta beste bat, eta beste bat, potea amaitu arte. Denbora gutxira gaizki sentitzen hasi zen, tripako min izugarria zuen. Ohera sartu zen. Gurasoak bueltan etorri eta Naroa negarrez topatu zuten. Naroak zer gertatu zen kontatu zien eta amak zera esan zion: "Gozoki bat edo bi jatea ondo dago baina gaur pasatu egin zara. Kalte haundia egiten dute; azukrea besterik ez daukate". Zopa bat egin zion osatzeko.

Naroak gozokiak kalte egiten dutela ikasi zuen egun horretatik aurrera neurrian jaten ditu gozokiak.



L.H. 2. maila



## Irati Ojinaga

«Irakurtzea eta lagunekin jolastea gustatzen zait»

# Itsasoko erregina



Itsasoko Erregina

1930ean Deba herriko portutik itsasontzi erraldoi bat irten zen baleak arrantzatzera.



Baina zaparrada bat egin zuen eta olatuak azkar mugitzen hasi ziren. Itsasontziak harri baten kontra jo zuen eta han gelditu ziren egunak eta egunak.

Orduan, egun baten itsasoko erregina agertu zen eta esan zuen:

-Aterako zaituztet hortik?

-Bai, eskerrik asko -

esan zuen Kapitainak.



Hala bazan edo ez bazan sar dadila Gernika-Lumoko plazan.

Irati Ojinaga



Uxue Villegas Olarreta
«Handitan, pediatra izan nahi dut»

# Bikiak

## Bikiak

Baziren behin Bilbon bizi ziren ahizpa bikiak. Oso desberdinak ziren. Nahia alferra, harroa eta Youtuberra zen. Egun guztia lagunei adarra jotzen, txarto sentiarazten eta grabatzen ematen zuen. Maia, berriz, eskuzabala, sukaldaria eta langilea zen. Bere lagunekin pastel goxo-goxoak egiten eta ondo pasatzen ematen zuen egun guztia.

Egun batean, Maiak pastel bat eraman zuen eskolara eta Maiak putz egiterakoan, Nahiak Maiari bultzatu zion eta Maiaren aurpegiak pastelean amaitu zuen eta Nahiak Youtubera igo zuen.

Baina Maiaren lagunek esan zuten inoiz probatu zuten pastelik goxoena zela eta sukaldaritzako programetan agertzen hasi zen. Nahiak baino jarraitzaile gehiago izan zituen eta Maia ospetsua egin zen.

Azkenean, Nahia konturatu zen garrantzitsuagoa zela, bere ahizpa bikia ondo tratatzea, jarraitzaile ezezagunak baino. Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Gernikako plazan.





## Haizea Laskurain

«Lagunekin egotea eta jolastea gustatzen zait»

# Haizea eta elurrezko panpina

### Haizea eta elurrezko panpina

Behin batean, Haizea izeneko neska bat bizi zen eta 7 urte zituen.
Egun batean, elurra egin zuen eta bi bolatxo eginda elurrezko panpin bat egin zuen.
Hurrengo egunean, eguzkia atera zen eta urtu egin zen. Haizea oso triste jarri zen, eta negar egin zuen.
Azkenean negarra kentzeko elurrezko panpinaren marrazki bat egin zuen.





## Kattalin Sierra

«Marrubiak jatea eta kantatzea gustatzen zait»

# Eguzki sistema

Duela urte pila bat Izar deitzen zen eguzki bat unibertso baten erdian bizi zen. Milaka urte zituen. Oso zaharra zen, eta argi laranja ematen zuen.

Egun baten Izarrek eguzki sistematik alde egin nahi zuen eta planetek jakin zutenean esan zioten:

- Ez! ez mesedez! ez zaitez joan!

Berak hitz egin gabe alde egin zuen. Beste izar batzuk ezagutu nahi zituen.

Ibili eta ibili, kilometro asko egin eta nekatuta amaitu zuen baina ez zuen lagunik aurkitu.

Momentu haietan negarrari eman zion. Negarrez zegoela bere ondoan izar bat agertu zitzaion.

Azkenean batak bestearekin hitz egin eta pentsatu zuten hasierako unibertsora joatea. Hara joan ziren eta han oso pozik bizi izan ziren.





L.H. 2. maila

Eider Auzmendi

«Etxekoekin egotea eta lagunekin jolastea gustatzen zait»

# Paula eta animaliak

Baziren behin bi neska Paula eta Ana deitzen zirenak eta beti jolasten zeudenak. Egun batean Paularen amak erregalu bat eman zion Paulari, eta honek ireki zuenean asko gustatu zitzaion, animalia bat zelako! Txakur bat! Paulak Txakurrari Fiona deitu zion. Fiona ikaratuta zegoen ez zuelako inor ezagutzen eta halako baten basora alde egin zuen. Fionak basoan animaliak ezagutu zituen: untxiak oreinak, basurdeak... eta lagun egin zen. Baina animalia txar bat ere topatu zuen, Rufus otsoa. Rufusek Fiona jan nahi zuen eta Fiona ezkutatu egiten zen. Lagunak Paularen bila joan ziren eta denon artean otsoa beldurtu zuten eta Rufusek basotik alde egin behar izan zuen betirako. Fiona eta bere lagunak Paularekin bizi ziren ordutik aurrera.





Gari Motxobe Zabala
«Futbolean jolastea gustatzen zait»

# Ume bat basoan galduta



## UME BAT BASOAN GALDUTA

Behin batean, Gari izeneko mutiko bat bere aitonaren etxera joan zen egun bat pasatzera.
Aitona mendiko etxetxo baten bizi zen. Negua zenez, eta hotza egiten zuenez, makila batzuk eta egurra biltzera joatea pentsatu zuten.
Hain pozik zebilen makilak eta egurra biltzen, non aitonarengandik urruntzen hasi baitzen.
Konturatu zenerako, aitona ez zegoen bere ondoan, baina hala ere, egur gehiago eta gehiago biltzen jarraitu zuen. Denbora pasatu ahala umea kezkatzen hasi zen. Gari, oihuka aitonari deitzen hasi zen: aitonaaaaa! baina alferrik, inork ez zion erantzuten. Halako batean zarata bat entzun

zuen, baina ez zen bere aitona. Buelta eman zuen eta otso bat zen! Gari, korrika hasi zen nora joan ez zekiela. Zuhaitz baten atzean ezkutatu eta makurtu zen, eta otsoak alde egin zuen. Denbora aurrera zihoan eta aitonaz ez zekien ezer, baina ez zen horregatik ikaratu. Hainbeste egun zeukanez, makila batzuk hartu eta txabola bat eraikitzea pentsatu zuen gaua pasatzeko asmoz. Lehenengo txabola apurtu egin zitzaion, baina berriro saiatu zen. Oraingoan bai!! Gero makila eta harri batzuk hartu zituen sua egin ahal izateko, eta beldur barik gero, hain nekatuta zegoenez lo geratu zen.

Esnatu zenean, eguna zen. Txabolatik irten zen eta aitonaren etxera itzultzeko bidearen bila jarraitu zuen. Berak ez zekien, baina aitona bere bila

zebilen. Halako batean, aitonak txabola bat ikusi zuen. Barrura sartu zen baina ez zegoen inor. Aitona garrasika hasi zen: Gariiii. Gari, norbaitek deitzen ziola ohartu zen. Korrika joan zen eta bera aitona zen. Gari oso pozik jarri zen aitona ikusi zuenean eta besarkada handi bat eman zioten elkarri.





Ane Ajuriagogeaskoa Gortazar
«Korrika egitea eta marraztea gustatzen zait»

# Patxi eta ardia

Bazen behin Patxi deitzen zen baserritar jakintsu bat. Zeanuriko baserri polit batean bizi zen. Hamabi ardiko artalde bat zeukan. Lan handia zeukan ardiak zaintzen. Hain nekatuta zegoenez, ardi bat saltzea erabaki zuen lan gutxiago edukitzeko. Orduan, maiatzaren 15 ean, San Isidro azokara joan zen. Bi agurek erosi egin zuten ardia eta beraien landara eraman zuten. Egunak joan eta egunak etorri, ardiari ilea erortzen zitzaiola konturatu ziren. Hainbat aste pasatu ondoren, ile berria ez zitzaiola ateratzen ikusi zutenean, Patxiren baserrira joan ziren. Bi agurek ardiari zer gertatzen zitzaion esan ziotenean, Patxi baserrira joan zen.

Orduan, behiari ile apur bat hartu zion, astoari belarri puntako ileak eta ahateari buztan erdiko lumak. Azkenean, tela polit eta berezi bat sortu zuen ardiari jartzeko. Hurrengo egunean, azokara bueltatu zen. Bi agureei ardia ematen zegoen bitartean, herritar batzuk etorri ziren eta beste batzuk ere bai! Ordvan, herritar guztiek ardi bat erosi nahi izan zuen, ardiak berezi-bereziak eta politak zirelako. Ordutik aurrera, Patxi ospetsua egin zen eta oso pozik bizi izan zen.





Alexandra Elena Prisacariu

«Nire amumarekin jolastea asko gustatzen zait»

# Lagun berri bat

## LAGUN BERRI BAT

Bazen behin Ana izeneko iratxo bat. Anak ile zuria eta luzea, begi marroiak eta belarri puntazorrotzak zituen. Iratxo oso polita zen. Anak Malut izeneko zaldi zuri bat zeukan. Egun batean, Ana baso elurtura joan zen eta han lerarekin jolasten zegoen mutil bat ikusi zuen. Aldapa bat jaisten lera apurtu zitzaion. Mutila oso triste zegoen.

Anak mutila triste ikustean galdetu zion:

– Nor zara? Ondo zaude?

Mutila hitzik gabe geratu zen, ezin zuelako sinistu ikusten zuena. Anak bere itxuragatik mutila harrituta ikusi zuen eta nor zen azaldu zion:

-Kaixo, ni Ana naiz eta iratxoen herritik nator.

-Kaixo, ni Daniel naiz eta lera apurtu zait.

-Nik magia egiten dakit, laguntzea nahi?

-Bai, mesedez.

Orduan Anak bere poltsikotik hauts magikoak atera eta lera gainera bota zituen eta lera konpondu zuen. Daniel asko poztu zen eta elkarrekin jolastu zuten. Gero Anak Daniel iratxoen herrira gonbidatu zuen. Danieli asko gustatu zitzaion herria eta egun horretatik aurrera askotan joan zen bertara Anakin jolastera.

Hori hala bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Gernikako plazan.



L.H. 3. maila



Arritxu Uriarte

«Niri asko gustatzen zait lagunekin jolastea»

# Bi lagun eta tigreak

Baziren behin bi lagun, Jon eta Eneko deitzen zirenak. Jonek zortzi urte zituen, betaurrekoak zituen eta erraz ikaratzen zen. Bestea Eneko deitzen zen, zortzi urte zituen, Eneko ostera ausartagoa zen. Tigre bat ere bazegoen, tigrea pixkat txarra zen, honek bi ume zituen, batek hiru urte eta besteak bost. Tigre txikiak erraz-erraz ikaratzen ziren. Tigre txikiak begiak berdinak zituzten, begi urdinak. Hiru tigreak azala horia eta beltza.



Egun batean bi lagunak basora joan ziren. Parke bat zegoen eta bertan jolasten hasi ziren. Iluntzen hasi zenean basoan lo egitea pentsatu zuten. Jonek beldurra zuen baina Enekok ez. Gauaren erdian Jon esnatu egin zen eta hiru gauza arraro ikusi zituen. Jon Eneko esnatzen saiatu zen esanez:

-Eneko esnatu!- Eneko ez zen esnatu, baina bigarren aldiz esan zuenean Eneko esnatu zen. Enekok ikusi zuenean esan zion:-gauza guztiak hartu eta goazen!-baina ez zuten jakin etxerako bidea. Hala ere Eneko eta Jon korrika hasi ziren, bi tigreak ez ziren mugitu baina tigre handia bai, konturatu gabe tigrea zulo batera erori zen. Enekok eta Jonek atzera begiratu zuten tigrea zetorren ikusteko, berriz aurrera begiratu zuten eta konturatu gabe irteera aurkitu zuten eta etxera itzuli ziren.

L.H. 3. maila



## Xubane Txopitea

«Niri lagunekin egotea eta marraztea gustatzen zait»

# Kaseta

Kaseta.

Baziren behin, lau neska-mutil. Asko dibertitzen ziren denak batera.

Egun batean, kaseta bat egitea pentsatu zuten:

–Lehenengo eta behin, errama eta harri batzuk bildu behar ditugu! Etxetik ere zerbait har dezakegu– esan zuen batek.

–Bai, oso polita eta dibertigarria izango da! –gehitu zuten besteek.

–Baina edozein gauza ez. Behar ditugun gauzak bakarrik– gehitu zuen txikienak.

Halako batean, argi bat ikusi zuten.

-Alien bat da!!! -oihukatu zuen batek.

Denek korrika ihes egin zuten. Baina, azkenak estropozu egin zuen, eta orduan, denek atzera egin zuten eta lagundu egin zioten altxatzen. Orduan, konturatu ziren eztia batzen zuena zela. Gizonak parkera lagundu zien eta ezti apur bat ere eman zien.

Azkenean, dena ondo bukatu zen.

Bi gehi bi lau, amaitu da ipuin hau.





Maria Lezamiz Ojanguren

«Alai eta jatorra naiz.
Lagunekin denbora pasatzea gustatzen zait»

# Amonaren istorioak

## AMONAREN ISTORIOAK

Behin batean Euskal Herriko etxe batean familia bat bizi zen. Familia, gurasoek, amonak eta iloba batek osatzen zuten. Gauero afaldu ostean, amonak bere ilobari sorginen istorioak kontatzen zizkion. Baina urteak igaro ahala, neskak gero eta gutxiago sinesten zuen sorginengan. Halako batean neskak galdetu zion amonari ea sorginak benetakoak ziren. Hori entzunda amonak inoiz kontatu ez zion istorio bat kontatu zion. Horretan, azaltzen zuen nola, ardiak zaintzen zegoen egun batean, otso bat mehatxatzen hasi zitzaion, hori dela eta ahalik eta zarata gehien egiten saiatu zen otsoa ikaratzeko. Bat-batean irri ozen bat entzun zen. Otsoa izutu egin zen. Amonak orduan irri hori zetorren lekura begiratu eta eta emakume bat hegaz ikusi zuen. Horrela ulertu zuen

sorgin bat izan zela. Istorioak txundituta utzi zuen neska.

Amonari esandakoaz txarto sentitzen zenez, neska amonari lore batzuk hartzea pentsatu zuen. Baina gautu egin zitzaion, izututa loreak hartu eta etxera itzuli nahi zuen. Bidean galdu egin zen. Ohartu zenean ez zekien non zegoen.

Neska atsekabetuta negarrez hasi zen, eta espero ez zuen gauza bat gertatu zitzaion; amonak istorioan kontatzen zuen irri hori entzun zuen. Irriari jarraitzea erabaki zuen. Denbora bat ibili ondoren inguruura begiratu, eta etxetik gertu zegoela ohartu zen. Etxera heldu zenean amonari loreak eman eta gertatutakoa kontatu zion. Amonak hori entzunda ilobari besarkada bat eman zion. Irribarre bat agertu zen haren aurpegian.

Hala bada edo ez bada gezurra dela ez niri esan.





Alex Bana
«Nagusitan abokatua izan nahi dut»

# Alferkeria ez da lagun ona

## ALFERKERIA EZ DA LAGUN ONA

Bazen behin mutil bat Ander deitzen zena. Seme bakarra zenez, oso babestuta zegoen. Horregatik, beti egoten zen bere bost lagun minekin: Peio, Iker, Jon, Asier eta Xabier. Asko gustatzen zitzaien ur-parkeetara joatea.

Egun batean, Anderrek, Asierrek, Jonek, Ikerrek eta Xabierrek ur-parke batera joatea erabaki zuten baina bere andereñoak sumendien proiektua egiteko agindu zien. Asier oso alperra zenez, ur-parkera bakarrik joan zen. Heldu zenean txirrista handi-handi bat ikusi zuen. Bertara joan eta bota nahi zuen baina kartel bat ikusi zuen urik ez zegoela jartzen zuena. Bere alperkeriagatik ez zuen eskailerarik jaitsi nahi. Horregatik, txirristatik bota zen. HARA!! Trabatuta geratu naiz! Ezin dut ez aurrera ez atzera egin! Lagundu Mesedez! -oihukatzen zuen behin eta berriz erdi negarrez. Peiok, Ikerrek, Jonek eta Xabierrek



sumendiaren proiektua bukatu ondoren ur-parkera joatea erabaki zuten eta Asierri deitu zioten. Ez zuen erantzuten eta bere lagunak kezkatu egin ziren. Orduan, Jonek Asierren gurasoei deitu zien, etxean dagoen galdetzeko, baina ez zegoen etxean.

Amak, ordea, poliziei deitu zien eta poliziak, gurasoak, lagunak eta herritarrak bere bila irten ziren. Bat-batean, Joni ur-parkera joatea burura tu zitzaion, herriko leku bakarra zelako begiratu gabe gelditzen zena. Lagunei eta bere amari deitu zien.
Heldu zirenean, amak laguntzaaa... entzun zuen, txirrista handienetik zetorren ahotsa. Hurbildu eta eskailerak igo zituenean, Asierrek norbait zebilela igerri zuen:
-Nor da?- galdetu zuen Asierrek-
-Bittori, Asierren ama naiz.
-Ama, Asier naiz, txirrista barruan atrapatuta nago.
Amak suhiltzaileei deitu zien eta esan zien bere semeak txirrista erraldoi batean atrapatuta zegoela eta ezin zutela atera.
Handik gutxira, suhiltzaileak eta bere lagunak heldu ziren.
Suhiltzaile batek mahuka atera zuen Asierri txirristatik ateratzeko. Ura botatzen hasi zenean, Asierrek txirristatik laban egin zuen eta txirristatik irten zen. Amak esan zion, aurrerantzean, bakarrik ez joateko leku ezezagunetara.
Eta HALA bazan EDO ez BAZAN Kalabazin PUREA jan.


EZ DAGO URIK EZIN DA ERABILI
Lagundu Mesedez!



Maddi de la Fuente

«Niri gehien gustatzen zaidana lagunekin irtenaldiak egitea da»

# Ireneren ametsa

Orain dela urte batzuk Islandian, Irene izeneko neskato bat bizi zen. Bere aitarekin bizi zen baserri bakar batean. Berak 10 urte zituen eta bere ametsa ikastolara joatea zen. Baina ez zen posible, bere aitak ez zuelako dirurik. Horregatik ez zuen lagunik. Egun batean amets bat izan zuen. Bera irrikaz zegoen egia bihurtzeko baina berak bazekien ez zela beteko. Baina hurrengo egunean bat-batean bere aitari mezu bat bidali zioten bankutik. Orduan esan zion Ireneri — Irene bankutik mezu bat bidali didate. Mezuan lan egiteko langileak behar zituztela zioen. Ireneren ametsa egia bihurtuko zen! Eta orduan bere aitak lana onartu zuen. Hurrengo egunean ikastolara joan zen. Egun batzuk egon zen ikastolan baina bere aitak lanean arazo bat izan zuen, kartzelara eraman zuten. Irene oso triste zegoen, baina berak bazekien beragatik egin zuela. Ondorioz, zeukaten diru bakarra hartu eta Irene hegazkin batean sartu zen Italiara joateko.



Italian familia bat ezagutu zuen, eta haiek asko lagundu zioten. Horregatik haiekin geratzea erabaki zuen.

Urte batzuk egon zen Italian eta lanean hasi zen. Berak kafetegi batean egiten zuen lan eta lan hau asko gustatzen zitzaion. Baina itxi egin behar izan zuten. Irene lana aurkitzen hasi beharko zen berriro, baina ez zitzaizkion lanak gustatzen.



Egun batean, Irenek bere aitaren mezu bat jaso zuen. Baina ezinezkoa zen!

Bere aita kartzelan zegoen eta mezuan bere aitaren boltsan gauza bat aurkitzeko eskatzen zion aitak Ireneri. Baina horretarako bere lehengo etxera bueltatu behar zuen. Orduan hegazkina hartu eta Islandiara bueltatu zen. Eta mapa bat ikusi zuen, hor egon zen urte guzti horietan. Irenek ez zekien zeren mapa zen. Baina atzean nota bat zegoen. Asmakizunak pasatu behar zituen.

Lehenengo asmakizunan hau zioen:

> 1- Lau hanka ditudan arren, ezin dut inoiz korrika egin, janaria dut gainean baina ezin dut inoiz jan.

Orduan Irene mahaira joan zen. Mahai azpian bigarren pista zegoen itsatsita. Eta hau esaten zuen:

> 2- Lau hanka hauek ez zaizkit ezertarako balio, beti geldirik nago, eta nire gainetik lo egiten duena.

Orduan Irene bere ohera joan zen eta gainean argazki bat zegoen. Argazkia fijatu zen eta loretegian zeuden bere aita eta bera. Orduan Irene loretegira joan zen eta bere aita zegoen!

Irene pozik zegoen baina minduta ere bai, eta bakarrik utzi izana aurpegiratu zion.

Hau eta gero, aitak barkamena eskatu zion eta Irenek onartu egin zuen. Hurrengo egunetan Italiako guztia kontatu zion Irenek aitari. Eta bere aitak kartzelatik irten zela esan zion. Azkenean Irene eta bere aita pozik geratu ziren, eta orduan Irene konturatu zen bere benetako ametsa bere aitarekin egotea zela.

L.H. 4. maila



## Izar Galarza Jaio

«Nagusitan saskibaloiko jokalaria izatea gustatuko litzaidake»

# 4 lagun espaziotik

Bazen behin udako egun batean Kattalin Izeneko neskato bat. Izaren etxean geratu zen lo egiten. Kattalin morena, dibertigarria eta barregarria da. Izar bebai morena da eta barregarria da.

Gau batean biek ezin zuten lo egin, orduan terrazara irten ziren. Irten zirenean bi estralurtar egon ziren eta estralurtar batek esan zien:

-Kaixo, ni Gan naiz. Kattalin eta Izar harrituta geratu ziren. Gero, beste estralurtarrak esan zuen:

-Kaixo, ni Gin naiz, nahi duzue gurekin espaziora etorri?

Kattalinek eta Izarrek baietz esan zuten jarraian.

Ganek hau esan zuen:

-Baina... Arazo bat daukagu, gure nabea... Apurtuta dago.

Kattalinek esan zuen:

-Lasai, konponduko dugu. Eta Izar eta Kattalin Izarren aitaren tresnak hartzera joan ziren, gero nabea konpontzen hasi ziren. Konpondu eta gero, ahal ziren joan espaziora. Ginek esan zuen:

-Goazen espaziora!!!!!

Laurak nabean montatu eta espaziora joan ziren.
Lehenengo Jupiterrera joan ziren, estralurtar askorekin
aurkitu ziren. Ginek hau esan zuen:
-Hau da planeta estralurtar gehien dituena.

Gero Martera joan ziren. Han ez zen inor egon.
Ganek esan zuen hemen planetan ez dela bizi inor.
Orduan, Saturnora joan ziren. Han, apur bat
deskantsatu eta jolastu egin zuten. Ondoren,
Uranora joan ziren. Han ez zuten
ezer egin eta gero, Neptunora joan ziren. Neptuno
Gin eta Ganen planeta da, euren lagunengana joan
ziren. Jateko apur bat eman zien eta gero Izarren
etxera joan ziren.
Heldu zirenean, Izar eta Kattalin ohera joan ziren.
Gaur egun hori Izarren eta Kattalinen sekretua da.
Ez esan inori.





## Lur Bilbao

«Niri asko gustatzen zait irakurtzea eta idaztea»

# Garazi eta baso babestua

Orain dela mila urte neskatila bat basoan bizi zen.
Neskatilak Garazi zuen izena eta loreak pila bat gustatzen zitzaizkion.

Bera oso alaia eta ederra zen, ile horia bi txirikordatan bilduta zeraman. Begi urdinak zituen eta aurpegia orreztaz beteta zuen. Soineko arropa polita eta dotorea zen.

Egun batean, paseo bat ematera joan zenean, zarata arraroa entzun zuen baina ez zuen kasurik egin. Hamar minutu barru zarata bera entzun zuen, aldiro errepikatzen zen, orduan erabaki zuen zarata segitzea eta horrela zarata egiten zuena nor deskubritu zuen... langile batzuk ziren.

Garazik galdetu zien zer egiten zuten baso erdian hainbeste makinekin eta hiri bat egingo zutela erantzun zioten.

Garazik esan zien baimenik gabe ezin zela basoa apurtu.
Baimenaren bila joan ziren bitartean Garazi korrika
batean herrira abiatu zen eta herriko jendea batu eta
udaletxera joan ziren.

Alkatearekin ere egin zuten berba eta pankarta
bat egin zuten "Basoa ez apurtu" jartzen zuena.
Manifestazioa basorantz abiatu zen.
Azkenean ez zuten basoa apurtu eta Garazi pozik
bizi zen betirako.

Ipuin ha amaitu da
ez bazaizue gustatu
ez eduki kontuan.
Gustatu bazaizue
hartu ipuinen zakuan



L.H. 4. maila



Miren Arenaza

«Sukaldatzen poz-pozik nabil»

# Itsasora erori zen izarra

Baziren behin, izar bi zeruan jolasten. Jolasean zebiltzatela nahi gabe, bata besteari sakatu eta bietariko bat zerutik erori eta itsasora jausi zen. Han zegoen izartxo txikia, bakar bakarrik itsasoan, zerura igo nahian. Triste, negarrez, penaren penaz, anai-arrebarik gabe. Ama ilargirik gabe. Itsasoaren bakardadean.

Hurbil zebilen bale batek Izartxo negarrez ikusi zuen eta hurbildu egin zitzaion.

Balea:- Zer gertatzen zaizu, Izartxo?

Izartxo:- Zerutik erori naiz eta orain bakar-bakarrik nago

Balea:- Gauza bat egingo dugu. Gure indar guztiekin ozen eta gogor aldarri egingo dugu. Horrela, zure zeruko izar neba-arrebek eta zure ama ilargiak entzun egingo digute.

Izartxo:- Ongi da.

Izarrak eta baleak, biak elkarrekin, ozen eta gogotsu ekin zioten aldarri egiteari

Balea eta Izarra:- Eo, Eooo!!

Baina zeruko izar disdiratsuek ez zuten itsasotik zetorren aldarria entzun. Izartxo, penaren penaz, tristuraz beterik, negarrez hasi zen berriz. Bere neba-arrebekin familian egotea zuen desio eta nahirik handiena.

Baleak, lagundu ezinean, bere bideari triste ekin zion.

Balea:- Agur, Izartxo, sentitzen dut lagundu ezin izana.

Bat-batean ipurtargi bat agertu zen. Izartxoren negarrak entzun eta negar haiek zetozen tokirantz joan zen. Eta han, Izartxo ikusi zuen.

Ipurtargi:- Zer duzu, Izartxo?

Izartxo:- Zerutik erori naiz eta orain bakarrik nago itsaso zabal honetan.

Ipurtargi:- Ni txiki-txikia naiz. Ez daukat indar askorik. Ezin dezaket zarata indartsurik egin, baina ilusio eta gogo guztiak honetan jartzen baldin baditugu, argitasuna emaneta bidea erakutsiko diegu zure anai-arrebei.

Izantxo eta ipurtargik, zeukaten ilusio eta gogo guztiekin argia ematen saiatu ziren. Hasieran bi argi txiki baino ez ziren, baina bata bestearen laguntzaz, gero eta distiratsuago bilakatu ziren. Azkenerako, eguzki erraldoi bat bezain besteko argia ematea lortu zuten.

Zeruan zeuden zenbait izar, horrelako argi distiratsua ikusita, zerutik salto egitea erabaki zuten argi erakargarri hori zer zen jakin nahian.

Ordutik hona zerutik salto egin zuten anai-arrebek itsasoan bizi dira itsas-izar bihurturik, Izantxorekin batera.

Gau ilunetan, esaten ohi dute, dir-dir egiten ikusi daitezkela.

txandaka, zeruko eta itsasoko izarrek, lehenago batzuk geroxeago besteak, nork argi gehien eman nahian jolasean.





L.H. 5. maila

Laiatz Egiarte Enbeita

«Barre egitea gustuko dut eta lagunekin jolastea»

## Natura zaindu

# NATURA ZAINDU

Bazen behin Amets izeneko neska bat.

Ametsek zuhaitzak, Animaliak, Landareak,....

Natura maite zuen.

Egunero egiten zuen mendira txangoa eta ikusten zituen animalia guztiekin hizketan egiten zuen.

Jendeak barre egiten zion eta bere lagunek ere ez zuten ulertzen. Egun batean mendira joan zenean neska-mutil talde bat ikusi zuen mendian eta zuhaitzak apurtzen egon ziren.



- Zertan zabiltzate?

Galdetu zuen Ametsek.

- Utzi bakean, bestela ikusiko duzu.

Erantzun zuten.

Amets negarrez hasi zen eta eskolako bere lagunei kontatu zien gertatutakoa. Lagunek orduan Ametsi laguntzea pentsatu zuten eta mendira joan ziren berarekin. Han zeuden dena apurtzen eta zikintzen.

Orduan Ametsek esan zuen:



-Nahikoa da. Natura errespetatu behar da. Bestela planeta hilko da. Ez da Txantxa bat, eta ez nauzue ikaratuko, basozainei deituko diet.

Denak isildu eta alde egin zuten bildurtuta. Orduan Ametsek eta bere lagunek guztia garbitu zuten. Hurrengo egunean, eskolara joan ziren Amets eta bere lagunak, neska-mutil taldea ere eskolan zeuden Ametseri beldurra ziotelarik. Gero, ikusi zuten Amets ume bat zela eta berriro basora joan ziren. Amets eguneroko txangoa egiten joan zen, ikusi zuen berriro basoa zikin-zikin zegoela eta basozainari deitu zion. Basozainak argazkiak atera eta egunerokora bidali zituen.



Biharamunean neska-mutil taldeak ikusi zuen argazkia eta korrika batean basora joan ziren eta den-dena batu zutan ez zuten papel bat ere ez utzi. Gero Amets eta basazainak joan ziren ikusten eta basozainak esan zion Ametsi:

- Hurrengoan ere basoa hain zikin ikusten baduzu deitu. Eta eskerrik asko.

Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila Kalabazan eta irten dadila Gernikako plazan.

Eta ez ahaztu: natura zaindu egin behar da.





Denisa Martin Ionita

«Sukaldatzea, nire pasioa da»

# Portal magikoa

## PORTAL MAGIKOA

Nataliak 13 urte ditu eta ordenagailuarekin jolastea gustatzen zaio. Bera nahiko altua da. Ile luze eta argia du. Ez ditu gona asko erabiltzen, prakak erosoagoak direla dio. Oso neska alaia da baina oso arin haserretzen da. Ideia argiak ditu eta neska azkarra da. Nataliak hainbat lagun ditu baina badu laukote bat asko maite duena: Aimar, Lorea, Sofia eta Unai. Bere lagunik onenak dira; txikitatik dira lagunak. Oso bromistak dira eta primeran pasatzen dute elkarrekin.

Behin, Natalia etxean aspertuta zegoen eta amari galdetu zion ea lagunei idatz diezaien etxean elkarrekin egoteko eta jolasteko.

–Noski baietz! Baina zintzo portatu, eh? –esan zion amak.

Nataliak mobila hartu eta email bat bidali zuen. Ez dute mugikorrik eta ordenagailuak ia beti piztuta izaten dute lanak egiteko, musika entzuteko, txateatzeko, irakurtzeko... Lagunek emaila irakurtzean, motxila prestatu eta Nataliaren etxera abiatu ziren. Bere etxera heldu zirenean, ordenagailua zabaldu zuten eta jolas bat zabaltzerakoan... portal magiko batean sartu ziren!!! Zulo beltz batean sartu ziren eta guztiak oihuka hasi ziren.

–Aaaah!!! LAGUNTZAAAA!!!

Buelta-bueltaka ibili ostean, leku ezezagun batean zeudela konturatu ziren. Begira eta begira ibili ostean jolas baten barruan zeudela jabeto ziren. Handik irteteko, jolasaren pausu edo maila guztiak gainditu behar zituzten. Hiru ziren: Lehenengoa, igarkizunei buruzkoa zeni bigarrena, pertsona serio bati barre eragitea eta azkena, sekretoa zen. Lehenengo misioa arin pasatu zuten eta sari bezala harri bat eman zien. Bigarren misioan, harrizko "estatua" handi bat zegoen eta "estatua" horri barre eragitea lortu behar zuten. Orduan, Sofia eta Lorea txisteak kontatzen hasi ziren baina ez zen ezer gertatzen. Natalia berehala konturatu zen gaiztoa izan zitekeela eta beste zerbait egin behar zutela.

- Zer? Ez dugu ezer ulertzen, Natalia. - esan zion Loreak.

- Agian, mina hartu behar dugu. Dantzatzen hasi gaitezke, gureta lurrera jausi, min hartu... - erantzun zuen Nataliak.

- Bai zera! Nola egingo dugu hori? - zion Aimarrek.

- Orduan, hemen geratu beharko gara betiko... - urduri Nataliak.

Nataliak hori esatean, dantzatzen hasi ziren eta bat-batean guztiak jausi ziren. Harrizko "estatua" barrezka hasi zen eta beste harri magiko bat eman zien. Hirugarren misioan, labirinto bat zegoen. Jolasa hastean batzuk ezkerretara joan behar zela esaten zuten, besteek berriz eskumatara. Eztabaidatzen zeudela, Natalia bakarrik gelditu zen eta labirintoko lore guztiak, beltzak jarri ziren. Nataliak, orduan, guztiak bilatu eta batera gainditu behar zutela konturatu eta haien bila abiatu zen. Aurretik neskak aurkitu zituen eta Unai eta Aimarren bila zihoazela, bidean pertsona batekin

egin zuten topo. Bazuzingoa zen eta negarrez aurkitu zuten, jolasetik aldegin ezinik. Neskek, beraiekin etortzeko gonbidatu eta zizto bizian besteen bila joan ziren. Hainbeste oihukatu ostean, azkenik aurkitu zituzten Aimar eta Unai. Loreek, lehenago izan zuten kolore distiretsua hartu zuten ostera ere. Haiei begira, ustekabean berriz ere zulora jausi ziren. Oraingo honetan, Nataliaren etxera agertu ziren.

Estutasun handia pasatu ondoren, lasaitasun handia hartu zuten.
-Nor zara zu?-galdetu zion Aimarrek ezezagunari.
-Ni, Mikel naiz. Zuek bezala jolasean atrapatuta geratu naiz. Mila esker bihotzez, laguntzagatik.-erantzun Mikelek
-Egon lasai, mutil! Ez dago elkar laguntzea baino hoberik.- erantzun zion Nataliak.
Pozik habiatu ziren etxera, abentura zoragarri bat gehiago bizita!




Denisa



Intza Agate Galdos Bidaguren

«Musikak ere zoriontsu egiten zaitu»

# Musikaren herria

## MUSIKAREN HERRIA

Bazen behin Ane izeneko neska bat Musikaren herrian bizi zena bere amarekin, Leire. Musika gogoko zuen, ia egun osoa pasatzen zuen kantak konposatzen eta edozein motatako instrumentuak jotzen. Ile marroi eta ondulatua zuen eta ez zion ezerk gelditzen gauza bat benetan lortu nahi zuenean.

Leirek ile labur eta marroia zuen eta oso bihotz onekoa zen. Anek oso lagun gutxi zituen eta baziren bi, zirikatu egiten ziotenak musika gustatzeagatik. Egun batean ohetik jaiki zen eta prestatu egin zen eskolara joateko. Konturatu zen ez zegoela musikarik herrian, orduan etxera joan zen amari kontatzera.



-Ama! Ama! Ez dago musikarik herrian

-Ezinezkoa da! Musikaren jainkosa izarrik dago!

-Bai, baina ez dago musikarik- Erantzun zion Anek kezkatuta.

Leirek eskolara joateko esan zion, berandu zelako jada, baina eskolan ez zegoen musika klaserik eta orduan eskola arinago amaitu zen. Eskola ostean Ane ikertzen hasi zen gertatutakoa. Lehenik "Google"en hasi zen ikertzen, ikusteko ea zerbait zegoen. Hurrengo egunean eskolara joan zen eta lagunekin ikerketari buruz hasi ziren hizketan.

—Aizu! Bururatu al zaizu Laura eta Maiderri galdetzea? -Esan zion bere laguna zen Ziarak.

—Gainera, Lauraren aita aberatsa da, eta Laurak esaten dion guztia egiten du. —Jarraitu zuen beste batek.

Orduan, Ane jolas orduan bi neskengana hurbildu zen.




—Aizu, zuek ba al dakizue musika zergatik desagertu den?

—Ez, baina oso pozik gaude musika ez dagoelako.

Anek, Maiderren aurpegia ikusita zerbait ari zirela ezkutatzen pentsatu zuen. Anek lagunek esan ziotena gogoratu zuen eta Lauraren aitarengana joan zen, baina, bere enpresa oso urrun zegoen eta 2 orduko bidaia bat egin behar izan zuen hara iristeko. Iristerakoan, enpresara sartu zen eta Lauraren aitaren bulegora abiatu zen.




—Kaixo! Zu... Jokin zara ezta?

—Bai ni naiz, zer behar duzu?

—Ni Ane naiz, zuk ba al dakizu zergatik desagertu den musika?

—Ni... ni... nik... -Esan zuen beldurrarekin— Bai zerikusia dut!

Baina momentu hartan Laura iritsi eta Ane ihesean etxera bueltatu zen. Etxera iristerakoan ama kezkatuta ikusi zuen, baina ez zen haserretu poztu baizik. Momentu hartan besarkatu egin ziren.

Hurrengo egunean eskola amaitu ostean Ane amaren baimenarekin berriro joan zen Jokinengana. Heltzerakoan Jokin ikusi zuen.

– Jokin, zer esan nahi zenuen atzo?

–Ba... ez zen nire asmoa baina Laurak musika desagartzeko konbentzitu zidan. Orduan, laguntzarekin. makina bat sortu genuen musika xurgatu zezakeena.



–Eta orain nola ekarriko dugu musika berriro?

–Ba, koloreetako botoi bat joz.

Hurrengo egunean, Jokin joan zen Anerengana eta bere furgonetaren atzekaldera eraman zuen eta hantxe zerbait zegoen maindire batekin estalita. Biek batera kendu zuten maindirea eta hor zegoen musika xurgatu zuen makina. Anek arnasa sakon hartu eta botoia jo zuen. Halako batean musika hasi zen entzuten lehenengo baxu baina gero ozenago. Ane poz-pozik jarri zen musika bueltatu zelako herrira. Hortik aurrera pozik eta zoriontsu bizi izan ziren betirako.

MUSIKAK ERE ZORIONTSU EGITEN GAITU



Anari Zearra

«Saiatuz, lortu daiteke»

# Jolas arriskutsua

Orain dela asko 10 urteko hiru neska, Uxue, Maialen eta Aroa Kortezubin bizi ziren. Asko gustatzen zitzaien abenturak bizitzea. Egun batean Aroaren etxera joan ziren gaua pasatzera eta garajean harrapaketara jolasten, mahai jolas bat aurkitu zuten. Jolasaren izena JOLAS ARRISKUTSUA zen. Neskek jolasteko gogo asko zuten. Jolasa hasteko, dadoa bota behar zen. Lehenik Maialenek bota zuen eta konturatu ziren fitxa bera bakarrik mugitzen zela! Konturatu gabe mahai eta teilatuan letra batzuk agertu ziren. Jartzen zuena irakurri eta izututa gelditu ziren. 30 segundura letrak desagertu ziren eta ahots batek altuan esan zuen: "Gaur begi bat zabalik egin lo". Oso izututa zeudelako, jolasa uztea erabaki

zuten. Oheratzean, badaezpada, lorik ez egitea erabaki zuten.

Gauean oso beldurtuta zeuden, ia lauak ziren eta ez zen ezer gertatu. Seiak aldera lo hartu zuten eta hurrengo goizean etxe ilun batean esnatu ziren.

Argia pizten saiatu ziren baina ez zegoen argirik. Maialenek linterna bat zuen eta hori erabiltzea erabaki zuten zulo beltz bat ikusiz.



Zulotik pasatzea erabaki zuten beste aldean zer zegoen ikusteko. Beste aldean ezer ez zegoela bazirudien ere, horman esaldi bat zegoen: "Hemendik irten nahi baduzue 3 erronka bete beharko dituzue." Bat batean esaldia desagertu eta ate bat ireki zen. Sartu eta ahots beldurgarri batek lehenengo erronka azaldu zien: "Hor goian duzuen kutxa zabaldu eta papera irakurri!" Hirurak plan bat pentsatu eta azkenean kutxara heltzea lortu zuten. Maialenek papera irakurri zuen: "Oso ondo! Bigarren erronka: 100 edalontzirekin dorre bat egin beharko duzue." Kostata baina azkenean lortu zuten. Lortutakoan ate bat zabaldu zen eta beste aldean gela ilun bat zegoen.

Gelara sartu eta lurrean sinbolo misteriotsu bat zegoen.
Inork ez zekien zer esan nahi zuen. Bat-batean ahots batek esan zuen: "Sinbolo honetan, zenbat zenbaki daudela uste duzue?

-Bost daude! -esan zuen Maialenek.

-Ez! Zazpi! -esan zuen Aroak.



-Nik, sei daudela esango nuke. -esan zuen Uxuek.

-Ez! Ez duzue asmatu! Azken aukera! Bestela ezingo duzue zuen etxeetara bueltatu. -esan zien ahots misteriotsuak.

Inork ez zekien zenbat zeuden eta ordena jarraituz talde lanean egitea erabaki zuten:

-Bat! -esan zuen Aroak.

-Bi! -esan zuen Maialenek.

Hiru! Lau! Bost! ... Azkenean 9 zenbaki aurkitu zituzten.
Emaitzaren berri ematera joan zirenean...

-Zeroa!!! -oihukatu zuen Maialenek. Azkenean 10 zeudela esan zioten ahotsari. Jarraian atea ireki eta Aroaren gelan sartu ziren.

Egia ala gezurra, bi begien artean sudurra.

*Zuk ikusi dituzu 10 zenbakiak? Gako QRan duzu laguntza.



Elene Basterretxea Revuelta
«Ikaragarri gustatzen zait irakurtzea eta igeri egitea»

# Itxaropena galdu gabe

2015eko martxoaren 8a, ostirala

Nala naiz, hamahiru urte ditut eta Burundin bizi naiz. Etxean hamar pertsona bizi gara: nire ama, aita, ama ordea, ahizpa nagusia; Eda, nire bikia; Nilla, anaia txikitxoena; Femi, nire anai ordeak; Kofi, Jamal eta Kamal eta ni.

Nilla eta biok jaio ginenetik, gurasoak aurrezten aritu dira, gu egunen batean Europara joan ahal izateko. Heldu da eguna, patera batean Mediterráneo itsasoa zeharkatu beharko dugu.

2015eko martxoaren 10a, igandea

Goiz da oraindik, baina ipar haize beroak esnatu nau jada. Demirrek esan duenez, ordubete falta da portura iristeko eta itsasontzia 10:00etan helduko da.
Paterara igotzen hasi garenean Nilla eta biok Demirri oihukatzen hasi gara:
- Agur Demir! Ondo izan eta esan familiari ondo gaudela, mesedez!
Mugitzen hasi gara bat-batean. Jende mordoa gaoz batera.

2015eko martxoaren 15a, ostirala

Gaur zarataren artean esnatu esnatu naiz. Goiz honetan ere bidaiari bat pateratik jausi eta uretan hondoratu egin da. Nilla oraindik lo dago. Ni urduri samar jarri naiz, horregaitik isatzarri egin dut.
- Kaixo Nilla! Egun on! - esan diot ere goxo eta lasaian.
- Egun on Nalla! - erantzun dit - goseturta nago.
- Lasai, emango digute zerbait, gainera gaur arratsaldean edo

bihar goizaldean hantxe egongo gara –gogoratu diot. Azkenean, Kasu egitea lortu dut. Baina bat batean Nilla oihukatzen hasi da:
–Arrain bat! Nala begira, janaria dago!
Uretara salto egin eta arraina harrapatu du. Gora igotzeko eskua eman diot baina beranduegi izan da. Bat batean, negar malko handi bat irten zait, gero beste bat, negarrez hasi naizen arte.

2015eko martxoaren 16a, larunbata

Oraindik ezin dut sinetsi, tristurak ez dit ezer egiten uzten. Hamar pertsona baino ez gara geratzen pateran. Asko lagundu didate eta Kontrolatzen saiatu dira.
Goizeko 7:30 dira eta uharte batera heldu gara. Lampedusa du izena eta Italiaren zati bat da.

·2018ko azaroaren 15a, ostirala

Gaur 16 urte bete ditut eta oraindik gogoan ditut Nilla galdu nuen egun hartako irudiak. Tristura eta nostalgiaren arteko nahaste bat da. Jada ez dut eskolara joan behar; gaur lanean hasten naiz. Urduritasuna dut barnean, nire etorkizunerako laguntza handia izango dela uste dudalako. Gainera paperak lortzeko pausu bat hurbilago egongo naiz. Arratsaldeko 20:00 dira eta 12 ordu luzetan lan egin ondoren, azkenean amaitu dut. Lana ez da oso polita. baina buruzagia oso atsegina da eta esan dit 2 urtetan lan egiten badut, institutorako beka bat emango didala nik nahi dudana ikasteko. Lasaiago nago.

2020ko azaroaren 15a, astelehena

Gaur nire urtebetetzea da! 18 urte bete ditut eta munduko oparirik haberena lortu dut; nire etorkizuneko ateak zabaltzeko opari bat, institutorako beka bat! Irrikan nago hasteko. Nolakoa izango ote da?.

2021eko urtarrilaren 1a, astelehena

Gaur hasi naiz institutura. Oso urduri egon naiz baina aldi berean pozik. Erizaina izan nahi dudanez "Erizaintzako laguntzaile" izeneko modulua ikastea erabaki dut. Arratsaldeko 15:00 dira, amaitu dut gaurkoz. Esan didate oso ondo moldatzen

naizela eta horrela jarraitzen badut 2 urte barru modulua amaitu eta lanean hasi ahalko naizela. Irrikan nago!

2023ko uztailaren 31, larunbata

Amaitu dut modulua, gaur festatxo bat egingo dugu eta diplomak banatuko dituzte. Aurretik portura joatea erabaki dut itsasoko kresal freskoarekin paseatzeko. Bat batean ahots ezagun bat entzun dut:

-Nala, Nala! - atzera begiratu eta nire familia guztia atzean zegoen.

-Kaixo! Nola zaudete? Hau poza!

-Kaixo printzesa! - erantzun dit amak - Ongi! Eta zu?

-Ni ere! Hau poza, ni modulu bat ikasten aritu naiz eta gaur diploma bat emango didate.

- Eta, non dago Nilla Kuttuna? - galdetu dit.

Hori entzutean negarrez hasi naiz eta gertatutakoa kontatu diet. Beraiek ere horrela erreakzionatu dute. Azkenean ulertu dute Nilla Kuttuna galdu izan barren, denok batera gaudela eta horregaitik pozik egon behar direla.

Diploma ederra eman didate eta oso harro nago nitaz. Gainera, bihar bertan hasiko naiz lanean herriko anbulatorioan.

Hemen amaitzen da nire bidaia. Oso gogorra izan da baina azkenean lortu dut! Merezi izan du benetan.





L.H. 6. maila

## Jare Mugira Elortza

«Pertsona alaia naiz.
Kirola eta musika gustuko ditut»

# Lore

LORE

Kaixo ni izenik gabeko txakur txiki bat naiz. Bi hilabete eta zortzi egun ditut zehazki. Txiki-txikia naiz eta kafe koloreko ile kizkurra dut, begi eder batzuekin batera.

Atzo gauean kaxa batean sartu eta nik ezagutzen ez nuen gizon bizar zuridun batek etxe batean utzi ninduen. Gaur zarata batek izartu nau. Konturatu orduko norbaitek ni nengoen kaxa hartu eta irrintzika hasi dela sentitu dut. Ni besarkatzen hasita zegoen neskatila bat ikusi dut segituan. Nik ez dakit non nagoen ezta zer egiten dudan hemen baina esaten dutenez, Olentzerok ekarritako opari bat naiz eta etxe honetan denek asko maiteko nautela iruditzen zait.

Pixkanaka-pixkanaka nere ingurukoak ezagutzen ari naiz eta aurkeztuko dizkizuet.
Bati ama deitzen diote eta Miren du izena (amatxomiren).
Mirenek ile laburra eta begi berdeak ditu, oso maitakorra dirudi nahiz eta genio asko duela uste dudan ikusitakoagatik.
Zaharrena dirudienari aitatxo deitzen diote, (aitatxoaitor).
Aitorrek errubio koloreko ilea eta begi urdin-urdinak ditu.
Hasieran besarkatu nauena Elene da. Elenek 8 urte, gaztaina koloreko ile luzea eta bere aitak bezalako begiak ditu. Denek Lore deitzen didate beraz suposatzen dut hori dela nire izen berria.

Jada badaramat denboraldi bat etxe honetan bizi izaten eta oso pozik nago. Egunero - egunero goizean, Elene eskolara joan baino lehen, gure etxe aurreko parkera joaten gara jolastera eta gero Astarekin lantegira joaten naiz.

Eguerdian, berriz, Mirenek lana bukatu eta etxera eramaten nau bazkaltzera. Lasai itxaroten dut Elene eskolatik etorri arte. Gero bere lagunekin jolastera joaten gara biak. Batzuetan Zuri Izeien txakurra ere etortzen da eta oso ondo pasatzen dugu elkarrekin. Asteburuetan ere gauza pila egiten ditugu familian.

Apur bat kezkatuta nabil azken boladan, badirudi gauzak aldatzen ari direla. Elenek goizetan ez nau inoiz jolastera ateratzen eta egun gehienak bakarrik pasatzen ditut etxean. Arratsaldetan ere ni gabe ateratzen da jolastera. Lore ere ez didate esaten jadanik, antza ni eta nire izena ahaztu dituzte. Badirudi nitaz aspertu direla eta ez dutela Lorez ezer jakin nahi.



Gaur, aspaldiko partez, Gorbeia ingurura txango bat egingo dugu. Gure etxetik oso urrun dago, baina oso pozik nago.

Paseo ederra eman dugu eta toki zoragarriak ezagutu ditugu baina konturatu naizenerako bakarrik geratu naiz. Non dago nire familia? Nora joan dira? Bakarrik utzi naute!!!

Egun batzuk pasatu dira eta bakarrik ibili naiz nora ezean. Gose itzela dut eta ez dakit zer egin. Lasterka - Lasterka Gorbeia inguruko herri txiki batera iritsi naiz, Zeanurira. Herri txikia denez egun batean tabernariak, beste egun batean ume batzuk eta beste batzuetan harategiko jabeak janari pixka bat eman didate eta horrela

bizirauten nabil. Baina ez pentsa bat ere erraza denik. Ez dut etxerik, ezta familiarik ere eta gainera oso triste eta bakarrik sentitzen naiz Elenetaz gogoratzean. Nire bizitza zoragarria izan da hasieran eta bat-batean kale gorrian nago bakarrik.

Badirudi nire zorte txarra amaitzear dagoela orain dela bi minutu Elene ikusi dudala iruditu zaidalako. Banoa korrika ea aurkitzen dudan...

KATAPLAF PON !!!

Loretxo auto batek harrapatu eta hil egin du. Elene eta bere familiak dena ikusi dute. Ezin dute bizi penaren penaz oso errudun sentitzen baitira, zerbait egin behar dutela erabaki dute.

LORE izeneko erakunde bat sortu dute txakurraren omenez. Beraiek egin zutena beste familia batzuek egin ez dezaten borrokatzen dute eta etxerik gabeko txakurrak zaintzen dituzte.




BERAZ ONDO PENTSATU ANIMALIA BAT EROSI BAINO LEHEN!

Hala bazan ala ez bazan sar dadila kalabazan eta atera Zeanuriko plazan.

AMAIERA

JARE MUGIRA





Enaitz Hormaetxea Arrien

«Nire animaliekin jolastea gogoko dut»

# Antton eta bi uharteak

Udako egun distiratsu batean, etxe handi batean, Antton eta bere familia bizi ziren. Miren eta Josebaren semea zen eta anai bat zuen, Mikel izenekoa. Miren medikua zen eta Joseba ertzaina. Antton bajua zen, argala, ile beltza, begi urdinak eta oso formala zen.

Egun batean oporretan, Hawaiera joatea bururatu zitzaien. Hurrengo egunean maletak prestatzen hasi ziren. Anttonek denen moduan maleta bat zuen, baina, honez gain beste boltsa bat zuen. Boltsa horretan, esploratzeko gauzak sartu zituen; buzoak, bonbonak, betaurrekoak, pala txiki bat eta brujula bat zuen.




Hawaira heldu zirenean, hotelean sartu eta arropak armairura sartzen hasi ziren. Baina inork ez zekien Anttonek beste boltza bat zuela. Boltsa bere ohearen azpian sartu zuen, inork ez aurkitzeko. Alarma bat jarri zuen goizeko bederatzietan. Pi,pi,pii,pi,pi,pii alarma entzun zen. Segituan amatatu zuen, gosaldu eta hoteletik irten zen, inori ezer esan gabe.



Kalean patinete bat hartu zuen eta Hawai esploratzen hasi zen. 3 ordutan Hawai esploratu zuen eta nekatuta zegoenez, hondartzara joan zen atseden hartzera. Urrutian uharte bat ikusi zuen.

Bere alboan sorosle bat zegoen eta zera esan zion:

-Egun on, ba al dakizu nola deitzen den uharte hori?

-Noski baietz, uharte hori Katmaran deitzen da.- esan zuen sorosleak.

Pixka bat pentsatu ondoren, berehala berriro patinetea hartu eta hotelera abiatu zen. Patinetea hoteleko sarreran utzi, igogailura sartu, bere solairura igo eta atea ireki zuen. Anttonen gamilia bazkaltzen zegoen:

-Non egon zara Antton?- esan zuen Mirenek.

-Hawai esploratzera joan naiz. Uharte bat ikusi hondartzatik eta jan ostean uhartea esploratzera joango naiz.- erantzun zuen Anttonek

-A bai ze ondo! Badaezpada esan aitari zurekin joateko

-Aita, nirekin etorri al zara mesedez?

-Ondo da, jaten amaitzen dugunean bagoaz

Bazkaltzen amaitu zutenean, boltsaren bila joan zen eta bere aitak zera esan zion:

-Nondik atera duzu boltsa hori?

-Etxetik ekarri dut. Hartu zure buzoa eta goazen.- erantzun zion Anttonek.

Hondartzara heldu zirenean, jantzi egin ziren eta buzeatzen joan zire Katmaran uharterarte. Heldu eta jarraian, esploratzen hasi ziren. Ibiltzen zebilen bitartean KLANK! entzun zen. Antton pixkanaka pixkanaka area kentzen hasi zen. Hara! Kristalezko botila bat zen. Ziztu bizian, berriro hondartzara bueltatu ziren. Buzoa eta guzti, kotxea hartu eta Hawaiko beste hondartza batera joan ziren.



Hondartza honetatik beste uharte bat ikusten zen. Mapak borobil bat markatzen zuen uhartearen gainean. Denbora galdu barik uhartearte joan ziren eta bertan beste papertxo bat zegoen.

"Jarraitu 30 pausu aurrera, 5 pausu eskumara, 3 pausu atzera eta zure atzeko zuhaitzera igo". Papertxoak esaten zuena egin zuten, Antton zuhaitzera igo zen eta zuhaitzaren puntatik, gauza distiratsu bat ikusi zuen:

- Hor aita hor! Gauza distiratsu bat dago uretan. - atzamarrarekin itsasoa seinalatzen zuen bitartean.

Di-da batean, zuhaitzetik jaitsi eta urpean igeri egiten hasi zen. Gauza distiratsua zegoen lekura joan zen. Areeren azpian altxor bat zegoen. Altxor horretan "Pataklon pirata irakurri ahal zen. Josebak altxorra berarentzat nahi zuen, baina Anttonek Bilboko museora eraman zuen. Antton eta Joseba telebistan agertu ziren. Pila bat diru irabazi zuten, gauza garestiak zeudelako altxorrean.

Antton handia egin zenean, arkeologo bihurtu zen, gauzak aurkitzea gustuko zuelako. Semeak izan zituen eta beti kontatzen zien istorioa semeei. Pozik bizi ziren eta Antton oso famatua bihurtu zen.



L.H. 6. maila



Zuhaitz Gonzalez Diez

Nire familia eta lagunak garrantzitsuenak dira»

# Aner pikantearen atzetik

ANER PIKANTEAREN ATZETIK

Kaixo! Aner naiz, niri pikantea asko gustatzen zait, baina amak ez dela ona esaten dit. Mundu osotik joango naiz! gauzarik pikanteena aurkitzen joatea gustatuko litzaidake. Lehenengo Indiara joango naiz han esaten dute jateko pikanteena Bhut Jolokia dela.

Aner bidai erdian gelditu zen gasolina botatzen. Bitartean komunera joan zen eta norbait aurkitu zuen.

-Kaixo -entzun zuen bere atzean

-Kaixo! munduko jatekorik pikanteena nago aurkitzen

-Hartu erloju hau lagunduko egingo dizu!!

-Eskerrik asko

Katxera joan eta erlojuak gezi batekin zeozer seinalatzen zuen. Anerrek harrantz joatea erabaki zuen. Iritsi zenean Jamaika izeneko herri batean zegoen. pertsona bateri galdetu zion:

- Ba al dakizu zein den txile pikanteena?

- Bai txile Jamaikarra - erantzun zion

- Eta non alal dut aurkitu?

- Ez dakit. joan probatzen

Anen jatetxe denetatik pasatu zen eta ez zeukaten txilerik, baina jatetxe bat, Emilio pika-pika izenarekin, zegoen eta barrura sartu zen

- Kaixo al dago inor?

- Kaixo, Emilio naiz zeren bila zabiltza?

- Txile Jamaikarra probatzea nahiko nuke

- Hemen daukazu kontuz, asko pikatzen du eta!!

- Pika egiten du baina ez askorik - erantzun zion Anerrek

Anen jatetxetik joan zen eta erlojuak beste norabera seinalatzen zuen, Kolore garri-horitxia batekin. Iritsi zenean seinalatutako lekura texasen zegoen. Han landa handi batzuk ikusi zituen. landara sartu eta galdetu zion baserritar bateri:

- Hemen dago txaseta fatelarik pikartzeko?

- Bai Habanera Sabinas Roja

- Ahal dut hartu bat?

- Ez

- Mesedez!!

- Ezetz esan dizut! Poliziari deituko diot hemendik ez bazoaz

Aner joan egin zen eta 5 txile berandugo...

- Ahal dut hartu Habanera?

- Polizia! Polizia!

- Zer gertatzen da hemen?

- Mutiko horrek lapurtu nahi dit

- Gezurra da! - Erantzun zuen Anerrek

- Erakutsi zure poltsikoak!

- Ez dut nahi

Anerrek Habanera hartu eta karrikan kateera sartu zen

Katean Anerrek jan egin zuen habanera eta ondoko pikatu zion.

Erlojuak baltzez markatzen zuen, iritsi zenean Hego Karolinan zegoen. Anerrek aurinagatik jakin zuen zein zen jateko pikanteena eta nola lortzen den. Bi txile nahastuta txile habanero eta txile fantasma nahastuta, natisietan irakurrita zuen eta Carolina Reeper deitzen zen



Aner Carolina Reepera jateko orduan zarata bat entzun zuen:
- Kartzelara zoaz lehen lapurtzeagatik.
Aner kartzelara iritsi zenean Carolina Reepera jan eta sua bota zuen. Horma apurtu eta kartzelatik ihes egin zuen. Horrela aurkitu zuen jateko pikanteena.



Naiara Arriola
«Irudimena beti martxan»

# Zein ipuin da hau?

## ZEIN IPUIN DA HAU?

Orain dela bost urte Euskal Herriko herrixka batean neska bat zegoen Katalin izenekoa. Katalinek ile marroia begi berdeak eta aho txikia. Argala zen eta nahiko altua. Beti jazten zituen arropa modernoak eta ilunak. Asko gustatzen zitzaion teknologia aparatuak eta ezer ere ez irakurtzea.

Egun batean nota txarra atera zuen eta bere amak teknologiazko aparatu guztiak kendu zizkion. Aspertuta zegoen eta Ipuin Magikoa deitzen zen ipuin bat ireki zuen, eta ipuinak katalin xurgatu egin zuen. Ipuin oso ezagun batean zegoen hiru txerrikumeen ipuinean. Galdetu zuen zergaitik nago hemen? konturatu zenean, bera txerri bat zen. Hasi egin zen istorioa eta katalinek ez zuenez inoiz irakurtzen ez zekien non zegoen. Katalin egurrezko etxean zegoen. Entzun zuen putz eta putz eta zure etxea hautsiko dut! Otsoaren etxera joan zen katalin eta barruan mugikorra, ordenagailua bilatzen hasi zen baina, ez zuen ezer aurkitu. Ondoren, joan zenean beraren etxea (egurrezkoa) hautsita zegoen eta adreiluzko etxe bat ikusi zuen urrunean. Joan zenean otsoak harrapatu zuen

eta ostiko bat eman zion otsoari, eta joan egin zen. Adreiluzko etxean beste bi txerri zeuden eta galdetu zuten non egon zara? eta Katalinek erantzun zion otsoaren etxean. Gero minutu batzuk igarota ez zen otsoa etorri eta bi txerriak irten egin ziren kanpora. Kanpoan otsoa ikusi zuten lurrean hilda bezala eta txerriak beste leku batera bialdu zuten Katalin.



Oso ezaguna zen ipuin batera, Txanogorritxoren ipuinera. Katalinek ez zekien zein zen. Katalin ipuin hoetan otsoa zen iletsua eta gris kolorekoa. Gero otsoak (Katalin) galdetu zion Txanogorritxori:

- Nondik joan behar da etxera heltzeko?
- Amonaren etxera joateko eskuinetatik laburragoa da. Esaten dio Txanogorritxok
- Nik etxera nahi dut joan. Esaten dio Katalinek.

Ostean Txanogorritxo amonaren etxera abiatzen da. Katalin eskuinetatik joaten da eta etxe zahar bat ikusten du. Ireki egiten du eta barruan amona bat ikusten du eta esaten dio Katalinek

- Badakizu non dagoen nire etxea?
- Ez, ez dakit zein etxetan bizi zaren. Esaten dio amonak

Orduan, Katalin buelta bat ematera joan zen bere etxea aurkitzeko. Bueltan Txanogorritxo ikusten du eta ezer esan gabe beste leku batera eramaten du.

Heldu zen lekuan ez zegoen ezer hutsik zegoen. Bat-batean katu bat etorri zen eta esan zion

- Leku hau hutsik dago zuk sortu behar duzulako ipuina.
- Baina, nik ez dakit ipuin bat egiten. Esan zion Katalinek.
- Ipuin bat egiteko irudimena eta ideiak ordena bat izatea da garrantzitsua

Katua joan egiten da. Katalin minutu batzuk egon zen pentsatzen. baina, ez zitzaion ezer burutatzen. Buruari bueltak ematen hasi zen eta esan esan zuen: katu bat, madizio bat eta pozima bat!

Horrekin ipuina egiten hasi zen:

-Bazen behin Peru izeneko mutiko bat zera amestu zuena: katu batek esaten diola madizio bat duela - Madizioa gehiago hitzik ez egitea da. Madizioa kendu nahi baduzu zure alboko auzoan dagoen sugardila dendara joan behar zara. Hori eta gero dendariari igelen begiak deitzen den pozima bat eskatu behar duzu txokolatezko hiru gaileten truke. Peru esnatu zenean esan zion amari Ama, egin al didazu gosaria?

Amak ez zion ezer erantzun berriro galdetu zion baina ezer. Ama musika entzuten zegoen. Peruk pentsatu zuen madizioarena egia dela. Katalin eskolara joan beharrean dendara joan zen. Peruk ez zekien non zegoen denda. Eskuinera edo ezkerrera eta eskuinetik joan zen. Eskuinean ez zegoen ezer eta ezkerrean ere ez. Berriro joan zen eskuinera eta sugardila denda aurkitu zuen. Sartu zenean atso zahar bat zegoen. Galdetu zion Peruk:

Aizu, Igelen begien pozima eman al didazu?

Atsoak ez zion entzun gorra zelako. Peruk pentsatu zuen ezin ziola entzun ezin zuelako hitzik egin. Peruk folio baten idatzi zion. Atsoak esan zuen ez zegoela eta etxera heldu zenean, Peruren ama haserre zegoen. Esan zion ez faltatzeko berriro eskolara eta horrekin Peru logelara joan zen. Oheratu egin zen ea zeozer amesten zuen. Baina, ez zuen ezer amestu. Gero afaria jan zuen eta berriz oheratu zen baina ez zuen ezer amestu. Goizean esnatu zenean galdetu zion amari:

- Ama, egin al didazu gosaria?
- Bai, laztana.

Peru flipatzen zen ez zuen ezer ulertzen.

Hori esandakoan katalin bere etxean agertu zen. orduan, zera pentsatu zuen bi gauza egingo zituela lehena ez zuela gehiago irekiko liburu Magikoa eta bigarrena gehiago irakurriko zuela.

L.H. 6. maila



## Maddi Unda Bilbao

«Familiarekin eta lagunekin egotea gustatzen zait»

# Surf txapelketa

Izaro 11 urte dituen neskatxo bat da. Bere gurasoek Izaro izena jarri zioten Mundakako etxeko leihotik ikusten den irlaren izena delako. Begi urdin-urdinak ditu, itsasoa bezelakoak eta bere ilea horia da, udako eguzkiaren antzekoa. Izaro trebea da uretako kirol guztietan: water polon, igeriketan... Baina, batez ere, surfeatzeko duen gaitasuna apartekoa da. Neska oso langilea da etxean zein ikastolan. Emaitza oso onak lortzen ditu eta beti dago laguntzeko prest. Gurasoak hain zeuden pozik Izaorekin, bere urtebetze egunean surf tabla bat eta Australiarako bidai bat oparitu ziotela. Zein pozik jarri zen Izaro!!

Ikasturtea bukatu eta heldu zen Australiarako bidaia egiteko momentua. Hogeitabi ordu hegazkinean egin ondoren, Sydneiko hondartzarik ederrenera heldu ziren Izaro eta bere gurasoak. Hondartza hura amaigabea zen urrutira begiratu arren, oraindik aurrerago jarraitzen zuen. Bertako area fin-fina eta zuria zen eta ura epela eta oso gardena. Gainetik begiratuta milaka arrain ikusten ziren. Izaro eta bere gurasoak toailak aretzan utzi eta bainu bat hartzera joan ziren. Handik gutxira Izarok kartel deigarri bat ikusi zuen «Uztailaren 19an mutilentzako surf-txapelketa»

—Aita, ama, ikusi duzue surf-txapelketaren kartel hau? Ez da bidezkoa, mutilentzako bakarrik?

—Ziur errakuntza bat izango dela. Goazen galdetzera—erantzun zioten gurasoek.

Gauza guztiak hartu eta antolakuntza postura hurbildu ziren.

—Kaixo izena eman nahi dut txapelketarako—esan zuen Izarok.

—Txapelketa mutilentzako da bakarrik—erantzun zion antolakuntzakoak.

—Zergatik? Nik ere badakit surf egiten eta oso urrunetik etorri naiz opor dibertigarri batzuk izatera.

—Ba hurrengo batean izan beharko da, txapelketa honetako maila oso altua da eta olatu erraldoiak daude, neskentzako arriskutsuegiak.

Izaro eta bere gurasoak buelta eman eta hotelerantza joan ziren. Amorruaren amorruz, gau horretan Izarok ezin izan zuen lorik egin eta zer egin pentsatzen aritu zen, zerbait egin behar zuen txapelketan parte hartu ahal izateko. Goizeko laurak aldera ideia bat izan zuen.

—Badakit! Bihar neoprenoa jantzita eramango dut eta nire begiak bakarrik ikusi ahal izango dituzte. Mutil ahotsa jarriko dut eta Telmo deitzen naizela esango diet.

Pentsatu eta egin.

Heldu zen txapelketaren eguna eta olatuak benetan ikaragarriak ziren. Lehenengo txandetan Australiako surflariak aritu ziren eta maila bikaina erakutsi zuten. Halako batean, heldu zen Izaroren txanda. Oso urduri zegoen baina bere ausardia atera eta uretara sartu zen gogotsu. Lehenengo olatua hartu eta surfeatzen hasi zen Mundakan ikasitako trikimailu guztiak erakutsiz. Epaimahaikideak aho zabalik utzi zituen. Partaide guztien txanda pasatu ondoren, txapelketako emaitzak emateko ordua heldu zen. Eta ezetz asmatu noir izan zen irabazlea: Telmo!! Izaro podiumera igo, neoprenoa kendu eta bistan utzi zuen bere ile hori luzea, han zeuden guztiak aho zabalik utziz. Izarok bai eman ziela ikasgai ederra mutilei! Mutilak zein neskak berdinak direla eta proposatzen duten guztia lortu dezaketela.



argitaratzailea:

GERNIKA LUMO
gure sustraiak

**GERNIKA-LUMOKO UDALA**
Hezkuntza Saila
Euskera Zerbitzua

gernika-lumoko
euskara zerbitzua

babeslea:

Bizkaia
foru aldundia